



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 7a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Zaraitzu Ibarrari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Zaraitzu Ibarrari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko apirilaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Zaraitzu Ibarrari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko apirilaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Zaraitzu Ibarrari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Entitatearen deskribapena eta aplikatzekoa den araudia (4. or.).
 - II.1. Datu orokorrak (4. or.).
 - II.2. Aplikatzekoa den araudia (5. or.).
- III.** Helburuak eta norainokoa (6. or.).
- IV.** Iritzia (7. or.).
 - IV.1. Zaraitzu Ibarra (7. or.).
 - IV.2. Irati Basoa, S.L. sozietatea (9. or.).
- V.** 2012ko kontu orokorraren egoera-orriak (10. or.).
 - V.1. Zaraitzu Ibarra (10. or.).
 - V.2. Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatua (14. or.).
 - V.3. Irati Basoa, S.L. sozietatea (2012ko uztailetik abendura bitarteko aldia) (15. or.).
- VI.** Zaraitzu Ibarrari buruzko ondorioak eta gomendioak (16. or.).
 - VI.1. Alderdi orokorrak (16 or.).
 - VI.2. Langile-gastuak (17. or.).
 - VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).
 - VI.4. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).
 - VI.5. Inbertsioetako gastuak (21. or.).
 - VI.6. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).
- VII.** Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatuari buruzko ondorio eta gomendioak (25. or.).
- VIII.** Irati Basoa, S.L. sozietateari buruzko ondorioak eta gomendioak (27. or.).

I. SARRERA

2013ko ekainaren 20an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskari bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldearen ekimenez, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatearen azken bost urteetako kudeaketa ekonomiko-finantzarioari eta kontuei buruzko fiskalizazioa egin zedin. Mankomunitate horren gobernu-organo gorena Zaraitzuko Batzordea da, eta bera da mankomunitate horren ondasun guztien ordezkaria eta administratzailea.

Eskari hori betetzeko, aurreko lan hori Ganbera honen 2013rako lan-programan sartu zen. Eskarian jasotako denbora-esparrua azken bost urteei badagokie ere, gure lanaren ardatza 2012ko ekitaldiaren azterketa izan da, eta, horretaz gainera, 2008ko ekitalditik aurrerako finantza-egoeraren bilakaera aztertu dugu.

Azterketa-lana 2013ko abendutik 2014ko otsailera egin da.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago 2000ko urrian, Kontuen Ganberak ibar horren eta hura osatzen duten udalen 1998ko ekitaldiko fiskalizazio-txosten bat egin zuela. Txostenean, honakoa adierazi zen:

- Aurrekontuaren likidazioari buruzko salbuespenei buruzko iritzia.
- Ez genuen iritzirik eman ondare-egoerari buruz.
- Legezketasunaren betetzeari buruzko aldeko iritzia.
- Finantza-egoerari buruzko aldeko iritzia.

Halaber, 2000ko urtarrilean, beste txosten bat egin genuen, non azterketa bat egiten genuen Zaraitzu Ibarreko tokiko zerbitzu publikoak emateko gastuaren arrazoizkotasun ekonomikoari buruz. Txosten horretan proposatzen genuen entitate bakarrean zentralizatzea (Zaraitzuko Batzordea) udalek ematen dituzten zerbitzu publikoak.

Txostenak zortzi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrean, fiskalizazioaren xede den entitatearen deskribapen bat egiten da, eta hari aplikatzekoa den araudia aipatzen da; hirugarren atalean, egindako lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu. Laugarrenean, Ibarreko kontu orokorraren, haren erakunde autonomoaren eta haren sozietatearen kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu. Kontuaren laburpenak bosgarren atalean ageri dira. Seigarren, zazpi garren eta zortzigarren ataletan iruzkinak, ondorioak eta gomendioak ematen ditugu, gure ustez egokiak direnak Ibarreko, haren erakunde autonomoaren eta haren sozietatearen antolamendua eta barne kontrola hobetzeko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zaraitzuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntzaren-gatik.

II. ENTITATEAREN DESKRIBAPENA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1. DATU OROKORRAK

Zaraitzu Ibarra Nafarroako Pirinioetan dago, foru erkidegoko ipar-ekialdean, eta honako herri hauek ditu: Espartza Zaraitzu, Ezkaroze, Galoze, Gorza, Itzaltzu, Jaurrieta, Otsagabia, Orontze eta Sartze. Bestalde, honako kontzejuak dauzka: Izize, Igari, Uskartze, Ibiltzieta eta Itzalle.

32.642 hektarea ditu eta 1.586 biztanle zeuzkan 2012ko urtarrilaren 1ean.

Aipatutako herri horiek Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea osatzen dute, zeina Zaraitzuko Batzordeak kudeatzen eta ordezkatzeko baitu. Batzordeak Ezkarozen du egoitza.

Entitate hori, zeina Errege Bardeako gozamen-kidea baita, izaera tradizionalako batasun bat da, eta VIII. mendean du jatorria. Honakoak ditu eginkizun nagusi:

- Ibarrenen baliabideak kudeatzea eta administratzea. Horien artean, bereziki garrantzitsua da ondasun komunen –larreak eta zuhaitza, batez ere– kudeaketa.
- Eskualdearen garapen ekonomikoa eta turismoa sustatzea.

Jarduera hori garatzeko, Ibarrek erakunde autonomo bat sortu du, "Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatua".

Halaber, 2012ko uztailean, Ibarrek sozietate publiko bat eratu zuen, haren partaidetzaren ehuneko ehunarekin, Irati Basoa, S.L. izena duena. Haren jarduera da Iratiko Etxeetako jatetxe-taberna kudeatzea. Iratiko Etxeak Irati Oihanean turismo- eta ingurumen-jarduerak sustatzeko eta haiei buruzko informazioa emateko toki bat dira.

Hona entitate horien 2012ko abenduaren 31ko kopuru ekonomikoa aipagarrienak:

Entitatea	Kopurua (eurotan)		Langileak, 2012-12-31n
	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	
Zaraitzu Ibarren Batzorde Orokorra	2.069.215	1.950.875	13
Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatua	65.292	60.591	5
			0

	2012ko uztailetik abendura		Langileak, 2012-12-31n
	Gastuak	Diru-sarrerak	
Irati Basoa, S.L. sozietatea	127.546	133.435	5

2012ko abenduaren 31n Batzordean lan egiten duten 13 pertsonen nagusiki lan egiten dute idazkaritza- eta administrazio-lanetan, garbiketan, oihan-lanetan, informazio turistikoan eta 2012ko abenduan sortutako tailer-eskolan.

II.2. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

2012an zehar, Musika Eskolaren Patronatuak bete beharreko oinarrizko araudia nagusiki honako lege eta erregelamendu hauek osatzen dute:

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Nafarroako Toki Administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta 3.000 biztanletik beherako lurralde esparrua duten toki entitateentzako Kontabilitate Baku-neko Instrukzioa onesteari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270/1998, 271/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Aurrekontu-betetzearen egoera-orria

Zaraitzu Iboxaren Batzorde Orokorraren ordenantzak.

Tasak eta prezio publikoak ezartzeko akordioak eta ordenantzak.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak, 6/1990 Foru Legea toki-kontratazioari dagozkionetan aldatzen duenak, ezarritako berezitasunekin.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

Abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.

Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.

Abenduaren 28ko 27/2012 Foru Legea, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

Irati Basoa, S.L. sozietatea, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorraz eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da; bereziki, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz.

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaria betez eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zaraitzu Ibarraren 2012ko ekitaldiko kontu orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

- Zaraitzu Ibarraren 2012ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinenetan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

- Zaraitzu Ibarrak eta haren erakunde autonomoek 2012an aurrera eraman duten finantza-jardueran legezkotasuna bete den.

- Zaraitzu Ibarraren eta haren erakunde autonomoaren 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

Fiskalizazioaren norainokoa honakoa izan da:

- Zaraitzu Ibarraren kontu orokorrak honako finantza-emaitza aipagarriak dauzka: aurrekontuaren betetze-egoera, aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua.

- Erakunde autonomoak ez du kontabilitateko egoera-orririk egiten, ezarritako araudiaren arabera. Bi agiri baizik ez du egiten: bata hasierako aurrekontua jasotzeko, eta bestea, berriz, betetakoa jasotzeko.

- Kontu orokorraren eranskinak: oroitidazkia, zorraren egoera eta kontu-hartzailetzaren txostena.

- Irati Basoa, S.L. sozietatearen kontuak

Zaraitzu Ibarrak ez du kontu bateraturik; hori dela eta gure iritzia banakako kontuei buruzkoa da.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarraren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Ondoren, arauzkotasunaren fiskalizazioaren ondorioz atera dugun iritzia ematen dugu:

IV.1. ZARAITZU IBARRA

IV.1.1. Zaraitzu Ibarren 2012ko kontua

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetuaren kontabilitate-balioei euskarria ematen dionik. Ibilgetuak, 2012ko abenduaren 31n, 4.596.763 euroko balioa du.

Antzeman da 2011n aurreko urtean jada erregistratutako 623.195 euroko inbertsioei alta eman zitzaizela.

Balantzean ageri den finantza-inbertsioen saldoak, zeina 2012ko abenduaren 31n 757.804 eurokoa baita, 691.995 euro gehiago dauzka, zeren eta ez baita erregistratu Batzordeak ibarreko enpresaburu batzuen hipoteka-maileguak bermatzeko eratutako gordailu batzuen itzulketa edo kitapena.

Ekitaldien arteko kontabilizazio-akatsak tarteko, aurrekontuko diru-sarreretan 401.865 euro gutxiago ageri dira, eta gastuetan, berriz, 399.760 euro gehiago. Horrek berarekin dakar guztizko aurrekontu-emaizak 801.625 euro gutxiago jasotzea.

Transferentzia arruntak direla-eta 400.137 euro kontabilizatu dira, inbertsio batzuk egiteko jasotako diru-laguntza bati zegozkionak; kapital-transferentzia gisa erregistratu behar ziren, ordea.

Ez dira kalkulatu ez urteko finantzaketa-desbideratzeak, ez "Irati, oihanen oihana" proiektuan metatutakoak –proiektu hori Nafarroako Gobernuak eta Feder funtsek kofinantzatu dute–. Horrek esan nahi du, besteak beste, aurrekontu-emaizta doituari 621.086 euro gutxiago ageri direla.

2012ko abenduaren 31n, diruzaintza-gerakinetik kobratzeko dauden eskubideetan 521.542 euro gutxiago ageri dira, ekitaldien arteko kontabilizazioan izandako akatsen ondorioz. Horri gehitu behar zaio ezen, aurreko proiektuko finantzaketa-desbideratzeak kontua hartu ez direnez, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak 448.925 euro gutxiago dauzkala.

Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuen saldoak direla eta, kontabilitate-akats bat badago, Ibarrek jasotako 48.794 euroko aurrerakin bat ageri baita; izan ere, zenbateko hori kitaturik ageri beharko luke.

Iratiko Oihaneko bisitarien ordaindutako prezio publikoak, 24.619 euro egiten dutenak, kontabilizatu gabe daude, nahiz eta haren eskumenekoak izan; Irati Basoa, S.L. sozietateak kontabilizatu ditu.

Zaraitzuk 62.285 euroko gastuak kontabilizatu zituen (BEZik gabe), Irati Basoa, S.L. sozietateak zenbait kontzepturengatik (hornidura, langileak eta abar) egindakoak.

Ez dira baliabide atxiki gisa kontuan hartzen zehazten salmentatik eta ehiza barrutitik heldutako diru-sarrerak, araudian kontrakoa ezarrita badago ere. Baliabide atxiki gisa kontuan hartu behar zen gutxieneko zenbatekoa 41.838 zen 2012an.

Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatuak ekitaldi bakoitzean aurreikusitako eta betetako diru-sarreraren eta gastuen zerrenda bat baizik ez du egiten, baina ez du kontu orokorrik ez egiten, ez aurkezten, Kontabilitate Bakunaren Instrukzioa onesten duen irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuak ezarritakoa bete gabe. Horrek esan nahi du kontu hori interpretatu eta ulertzeko behar adina informazio eta beharrezkoa den informazioa falta dela.

Gure iritiz, aurreko salbuespenen garrantzia dela eta, Zaraitzu Ibarren 2012ko ekitaldiko kontu orokorrak ez du leialki irudikatzen 2012ko abenduaren 31ko ez ondare-egoera, ez eta au-

rrekontuaren likidazioa eta emaitza ekonomikoa ere, aplikatzekoak diren kontabilitateko eta aurrekontuko printzipio eta arauen arabera.

IV.1.2. Legezketasuna

Ibarrak ez du kontrol edo kontu-hartzaitzarik egiten ez Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatuaren, ez Irati Basoa, S.L. sozietatearen jarduera ekonomiko-finantzarioari buruz.

Zaraitzu Ibarreko enpresaburu batek Zaraitzu Ibarrearen jabetzakoa den nabe bat dohainik erabiltzen du. Ez da horri buruzko inongo espedienterik izapidetu, eta ez dago, ezta ere, horren inongo agiri-euskarririk. Egitate horrek kontabilitate-erantzukizunak ekar litzake. Horri dagokionez, 2014ko apirilean Ibarrak errentamendu-kontratu bat egina du enpresaburu horrekin, eros-teko aukera biltzen duena.

Ibarrearen jarduera ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har, lehen aipatu diren aurrekontuen kontabilitate-gaietako salbuespen horien ondorioak eta aurreko lerroketan azaldutakoa alde batera utzita.

IV.1.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera

Zaraitzu Ibarrearen kontu orokorrari buruz ganbera honek daukan iritzia dela eta, ezin izan da azterketarik egin egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, ez eta, egin ohi den bezala, aurrekontu-egonkortasunaren betetzeari buruz ere, zeren eta lor litezkeen ondorioek ez bailukete fidagarritasunik izanen.

Aurrekoa gorabehera, ondoren datu batzuk aipatuko ditugu 2012ko egoera ekonomiko-finantzarioari buruz. Datu horiek IV.1.1 atalean aipatutako doikuntzak egin ondoren lortu dira.

- Aurrezki gordina 174.926 eurokoa da eta aurrezki garbia, berriz, 130.923 eurokoa. Horrek esan nahi du Ibarrak bere baliabide arruntak sortzeko gauza dela, gastu arruntak finantzatu ondoren.

- 2012ko abenduaren 31ko zor bizia 459.338 eurokoa da, eta 2012ko urtarrilean jaso eta 2015ean amaituko dela aurreikusitako den mailegu bati dagokio. Zor bizia diru-sarrerara arruntan ehuneko 54 da. Kopuru hori zorpetze berria hartzeko araudiak ezartzen duen ehuneko 110a baino txikiagoa da. Aipatu beharra dago mailegu hori 2013an kitatu zela. Horri gehitu behar zaio 2012ko abenduan 188.572 euroko diruzaintzako kreditu bat hitzartu zela, epe laburrekoa. 2013an itzuli zen kreditu hori.

- Zorpetze maila ehuneko 5,19ra iristen da, eta zorpetzearen mugak ehuneko 20,65 egiten du; hori dela eta, Ibarrak ehuneko 15,46ko zorpetze gaitasuna du.

- Diruzaintza-gerakina, behar diren doikuntzak egin ondoren, 537.481 eurokoa da; horietatik 217.323 euro finantzaketa atxikia duten gastu-gerakinari dagozkio, eta gainerako 320.158 euroak gastu orokorretarako dira.

Horrenbestez, Ibarrearen 2012ko egoera ekonomiko-finantzarioa saneatuta dago, zeren eta entitateak gai baita baliabide arruntak sortzeko, zorpetzeko gaitasuna badauka eta etorkizuneko baliako gastuetarako diruzaintza-gerakina badauka.

IV.2. IRATI BASOA, S.L. SOZIETATEA

IV.2.1. Irati Basoa, S.L. sozietatearen 2012ko kontu orokorra

Aipatu den bezala, sozietateak prezio publikoen ondoriozko diru-sarrera batzuk kontabilizatu ditu, 27.815 eurokoak, Iratiko Oihanera egindako bisitengatik, bai eta jarduera horrekin lotutako gastu batzuk ere, 30.196 eurokoak, Ibarrek kontabilizatu behar zituenak, bere eskumenekoa baitira.

Gainera, sozietateak gastu batzuk izan ditu bere jardueran, 62.285 euro egiten dutenak (BE-Zik gabe). Gastu horiek zuzenean Batzordeak hartu ditu bere gain.

Aurreko guztia dela eta, sozietatearen emaitza, zeinak balio positiboa baitu, 6.472 eurokoa da, baina 53.432 euroko balio negatiboa izan beharko luke.

Aurreko salbuespenen eragina alde batera utzita, Irati Basoa, S.L. sozietatearen 2012ko ekitaldiko kontuek irudi zehatza erakusten dute, alderdi aipagarri guztietan, 2012ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari buruz, bai eta sozietate horren eragiketen emaitzei buruz edota data horretan amaitutako urteko ekitaldiko eskudiruko fluxuei buruz ere, finantza-informazioa dela eta aplikatzekoa den arau-esparruari jarraituz eta, batez ere, hartan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz.

Azken batean, Zaraitzu Ibarra toki entitate txikia eta izaera tradizionalakoa izanda ere, Gambera honek uste du eragiketen erregistroa eta kontabilitatea hobetu behar direla, kontu orokorra osatzen duten kontabilitateko egoera-orriek hark garatzen duen jardueraren errealitatea erakuts dezaten.

V. 2012ko KONTU OROKORRAREN EGOERA-ORRIAK**V.1. ZARAITZU IBARRA****V.1.1. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria****Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	280.758	-14.235	266.523	247.901	93	227.312	92	20.589
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	461.595	34.394	495.989	281.929	57	211.654	75	70.275
3. Finantza-gastuak	30.061	0	30.061	19.827	66	19.827	100	0
4. Transferentzia arruntak	96.036	0	96.036	54.853	57	34.857	64	19.996
5. Inbertsio errealak	1.526.087	-23.159	1.502.928	1.370.917	91	1.251.601	91	119.316
6. Kapital-transferentziak	89.001	3.000	92.001	69.251	75	53.759	78	15.492
7. Finantza-aktiboak	361	0	361	361	100	361	100	0
8. Finantza-pasiboak	24.176	0	24.176	24.176	100	24.176	100	0
Gastuak, guztira	2.508.075	0	2.508.075	2.069.215	82,5	1.823.547	88	245.668

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobratutakoa	Kobratutakoa (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	-	0	-	0
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	42.175	0	42.175	20.970	50	14.863	71	6.107
4. Transferentzia arruntak	862.402	0	862.402	967.442	112	964.477	99,7	2.965
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-erprobetxamenduak	152.030	0	152.030	234.152	154	88.304	38	145.848
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	-	0	-	0
7. Kapital-transferentziak	736.686	0	736.686	217.114	29	217.114	100	0
8. Finantza-aktiboak	104.299	0	104.299	27.683	27	27.683	100	0
9. Finantza-pasiboak	610.483	0	610.483	483.514	79	483.514	-100	0
Diru-sarrerak, guztira	2.508.075	0	2.508.075	1.950.875	78	1.795.955	92	154.920

V.1.2. Aurrekontu-emaitza

Kontzeptua	2011	2012
Aitortutako eskubideak	1.112.909	1.950.875
Aitortutako betebeharrak	-1.410.656	-2.069.215
Aurrekontu-emaitza	-297.747	-118.340
Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	-144.706
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaitza doitua	-297.747	-263.046

V.1.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2012ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2011	2012
+ Kobratzeko dauden eskubideak	161.854	287.030
Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	48.078	154.920
Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	0	0
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	113.776	132.110
(Nekez kobratzeko eskubideak)	0	0
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	154.943	513.102
Gastuen aurrekontua Aurtengo ekitaldia	124.337	245.669
Gastuen aurrekontua Itxitako ekitaldiak	399	330
Diru-sarreraren itzulketak	0	0
(Aplikatzeko dauden gastuak)	0	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	30.207	267.103
+ Diruzaintzako funts likidoak	126.969	242.011
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	133.880	15.939
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	144.706
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	133.880	-128.767

V.1.4. Egoera-balantzea 2012ko abenduaren 31n

Aktiboa

Deskribapena	2011	2012
Ez-arrunta	5.354.206	5.354.567
Ibilgetu materiala	2.674.219	2.674.219
Ibilgetu ukiezina	9.424	9.424
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	9.977	9.977
Herri ondasunetan egindako inbertsioak	1.903.143	1.903.143
Finantza-ibilgetua	757.443	757.804
Korrontea	288.823	529.041
Zordunak	161.854	287.030
Finantza-kontuak	126.969	242.011
Aktiboa, guztira	5.643.029	5.883.608

Pasiboa

Deskribapena	2011	2012
Funts berekiak	5.488.086	4.911.168
Ondarea eta erreserbak	5.488.086	4.911.168
Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	0	0
Epe luzeko hartzekodunak	0	459.338
Epe laburreko hartzekodunak	154.943	513.102
Epe laburreko zorrak	154.943	513.102
Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	0	0
Pasiboa, guztira	5.643.029	5.883.608

V.1.5. Eraitza ekonomikoa 2012ko abenduaren 31n

Ekitaldiko eraitza arruntak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011ko kopurua	2012ko kopurua	Deskribapena	2011ko kopurua	2012ko kopurua
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako izakinak	0	0
39 Izakinen balio-galeragatiko hornidurak	0	0	39 Izakinen balio-galeragatiko hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	41.207	20.970
61 Langileria-gastuak	285.038	247.901	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	133.795	234.152
62 Finantza-gastuak	0	19.827	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
63 Zergak	0	0	73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	182.004	281.929	75 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0
65 Gizarte-prestazioak	0	0	76 Transferentzia arruntak	363.774	967.442
66 Ustiapeneko diru-laguntzak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
67 Transferentzia arruntak	83.924	54.853	78. Bestelako diru-sarrerak	0	0
68 Kapital-transferentziak	75.047	69.251	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldiko	0	0	79 Daukaten helbururako aplikatutako hornidurak	0	0
800 Ekitaldiko eraitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	548.803	800 Ekitaldiko eraitza arruntak (saldo zorduna)	87.237	0
Guztira	626.013	1.222.564	Guztira	626.013	1.222.564

Ekitaldiko eraitzak

ZORRA			HARTZEKOA		
Deskribapena	2011ko kopurua	2012ko kopurua	Deskribapena	2011ko kopurua	2012ko kopurua
80 Resultados ctes del ejercicio (saldo deudor)	87.237	0	80 Ekitaldiko eraitza arruntak (saldo hartzekoduna)	0	548.803
82 Ekitaldiko aparteko eraitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ekitaldiko aparteko eraitzak (saldo zorduna)	0	0
83 Balore-zorroaren eraitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balio-zorroaren eraitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	20.385	0	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	399
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	107.622	0	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	549.202
Guztira	107.622	0	Guztira	0	549.202

V.2. ZARAITZU IBARREKO MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA

Patronatuak egindako agirien laburpena

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako kredituak	Aitortutako betebeharrak
1. Langile-gastuak	57.067	62.679
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	11.779	2.613
Gastuak, guztira	68.846	65.292

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreren kapituluak	Hasierako kredituak	Aitortutako eskubide garbiak
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	25.395	25.460
4. Transferentzia arruntak	43.449	35.130
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	2	2
Diru-sarrerak, guztira	68.846	60.592

V.3. IRATI BASOA, S.L. SOZIETATEA (2012ko uztailetik abendura bitarteko aldia)

V.3.1. Egoera-balantzea 2012ko abenduaren 31n

Aktiboa

Deskribapena	2012
Ibilgetua	6.162
Ibilgetu materiala	5.571
Zerga geroratuen aktiboa	591
Zirkulatzaila	45.707
Zordunak	47.000
Finantza-kontuak	-1.293
Aktiboa, guztira	51.869

Pasiboa

Deskribapena	2012
Funts berekiak	9.772
Kapitala	3.300
Galerak eta irabaziak	6.472
Epe laburreko hartzekodunak	42.097
Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	42.097
Pasiboa, guztira	51.869

V.3.2. 2012ko ekitaldiko galera eta irabazien kontua

Deskribapena	2012
Negozio-zifraren zenbateko garbia	105.620
Hornidurak	-48.176
Bestelako ustiatzeengatiko diru-sarrerak	27.815
Langile-gastuak	-43.476
Bestelako ustiatze-gastuak	-35.420
Ibilgetuaren amortizazioa	-392
Beste emaitza batzuk	-81
Ustiapeneko emaitza	5.890
Emitza finantzarioa	0
Mozkinen gaineko zerga	583
Ekitaldiko emaitza	6.472

VI. ZARAITUZ IBARRARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, Kontuen Ganbera honek Ibarren funtzionamenduz atera dituen ondorio nagusiak eta, haren aburuz, Ibarrek, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolen sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu beharko lituzkeen aholku nagusiak aipatzen dira.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Ibarren aurrekontua behin betiko onetsi zen, eta 2012ko ekainaren 15eko NAO-n argitaratu zen.

Zaraitzu Ibarren 2012ko kontu orokorra 2013ko maiatzaren 7an onetsi zen.

Kontuaren likidazioari buruzko espedientean ez dira sartzen finantzaketa atxikia duten gastuen egoera-orria, ez eta baliabide atxikiaren egoera-orria ere.

Ez dago ondasunen inbentariarik, ibilgetu materialaren eta ez-materialaren kontabilitate baliok, azpiegituretako eta erabilera orokorrerako ondasunetako inbertsioak eta herri-ondasunetan egindako inbertsioak oinarritzen dituenik. Horien balioa 4.596.763 eurokoa da 2012ko abenduaren 31n. Ondasun horiek ez dira gaurkotu 2012ko inbertsioekin; inbertsio horiek, izan ere, 1.370.917 eurokoak izan ziren.

Antzeman da 2011n, ibilgetuaren zerrendan inbertsio bat, 623.195 eurokoa, bi aldiz erregistratu zela.

2000n, Ibarrek, eskualdearen garapen ekonomikoa sustatze aldera, zuzenean zenbait hipoteka-mailegu bermatu zituen, banku-entitate batek Ibarreko enpresaburu batzuei emandakoak, eta hartarako emandako maileguen ehuneko 120ari zegozkion diru-zenbatekoak -800.749 euro-zituzten gordailuak eratu zituen. Gordailuak berreskuratzen joan dira, maileguak itzuli ahala. Finantza-inbertsioen saldoak, abenduaren 31n, 757.804 euroko zenbatekoa jasotzen du, gordailu horiei dagokiena. Ez dira kontabilizatu ordea, data horretara arte egindako itzulketa edo kitape-nak, 691.995 eurokoak.

Aurrekoarekin lotuta, 2010eko maiatzean, enpresaburu batek banku-entitate bati ordaintzeari utzi zion, eta banku entitate horrek hipoteka-exekuzioko prozedura abiatu zuen, Zaraitzu Ibarrean kokatutako nabe bat bahituran hartzeko. Finantza-entitateak ondasun horren enkantea egin zuen, eta eman gabe gelditu zen. Egoera horren aurrean, finantza-entitateak errematean nabea Ibarri laga zion, zorraren prezioak gehi gastuek eta kostuek egiten duten kopuruan: 86.550 euro.

Ibarrek erabaki zuen enpresaburuak ondasun hori erabiltzen jarraitzea, eta 2011ko urrira arteko epea eman zion aipatutako kopurua ordaintzeko. Nabe hori ez da erregistraturik ageri balantzeko ibilgetuan.

Txosten hau idazteko egunean, enpresaburuak nabea dohainik erabiltzen jarraitzen du; ez da, ordea, inongo espedienterik izapidetu eta ez dago horri buruzko agiri-euskarririk. Egitate horrek kontabilitate-erantzukizunak ekar litzake.

Horri dagokionez, 2014ko apirilean Ibarrek errentamendu-kontratu bat egin du enpresaburu horrekin, erosteko aukera biltzen duena.

Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuen saldoak direla eta, kontabilitate-akats bat badago, Ibarrek jasotako 48.794 euroko aurrerakin bat ageri baita; izan ere, zenbateko hori kitaturik ageri beharko luke.

Erregistratuta ageri dira oihan-loteen esleipen-hartzaileen eskutik jasotako fidantza batzuk, 2007a baino lehenagoko saldoekin; 7.863 euro egiten dute. Haiek eskatzekoak diren aztertu beharko litzateke.

Diruzaintzaren egoera-orrian antzeman da finantza-entitate baten banku-kontu bat badagoela, 2012ko abenduaren 31n 6.025 euroko saldoa duena. Ez da kontu operatibo bat, eta ez da harekin inongo eragiketak egiten. Erregistratutako mugimendu bakarrak haren mantentzearekin lotutako finantza-gastuenak dira.

Hona gomendatzen duguna:

- *Aurrekontuak eta kontu orokorra legedi indardunean ezarritako epean egitea.*
- *Aplikatzekoa den araudiak eskatzen dituen kontabilitateko egoera-orri guztiak egitea.*
- *Inbentario bat egitea, ibilgetuaren kontusailak balantzean zuzen kontabilizatzeko.*
- *Ekitaldian egindako inbertsio guztiak balantzeko aktiboko ibilgetu-kontu guztietan sartzea.*
- *Ahal bezain laster erregularizatzea enpresaburu partikularrak nabea erabiltzeak dakarren egoera.*
- *Aurrekontuz kanpoko hartzekodunen antzinako saldoak exijitzekoak diren eta indarrean dauden berrikustea.*
- *Aurrekontuz kanpoko beste zordunen saldoak berrikustea, balizko akatsak eta aldeak zuzentzeko.*
- *Mugimendurik ez duten banku-kontuak kitatzea, behar ez diren finantza-gastuak saihesteko.*
- *Aplikazio informatikoak bideratzen dituen aukera guztiak aprobetxatzea kontu orokorraren aurkezpena hobetzeko; esate baterako, gastuaren proiektuen modulua, baliabide atxikiak, inbentarioa eta abar.*

VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileei dagozkien gastuek 247.901 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 93, alegia. Langileei dagozkien gastuek 247.901 euro egin zuten, aurreikusitako aurrekontu-kredituen ehuneko 93, alegia.

	2011	2012	2012-2011 aldea
13 Lan-kontratudun langileak	208.046	187.763	-10
14 Hainbat lansari	640	3.642	469
16 Gizarte aseguruak, montepioko kuotak eta familia laguntza	76.353	56.496	-26
Guztira	285.038	247.901	-13

Langile-gastuak ehuneko 13 gutxitu dira 2011koekin alderatuta, funtsean zuhaitzen garbiketan eta markaketan diharduten langileen kostua jaitsi delako, 53.000 euroan gutxi gorabehera.

Ibarrak 2012ko uztailean eta abuztuan langile batzuk kontratatu zituen, gero, irailetik aurrera, Irati Basoa, S.L. sozietatearen plantillan ageri direnak. Horien lansarien kostua 14.000 eurokoa da, Halaber, lantegi-eskolako zuzendaritzaren eta ikasleen gastua hartu zuen bere gain (15 ikasle gehi zuzendari bat eta irakasle bat), zeinak 2012ko abenduan hasi baitziren lanean. Gastu hori 17.000 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera, gehi gizarte aseguruak.

Langileen adierazitako gastu horrek 2012ko abenduko aparteko soldata ere biltzen du, zeren eta Batzorde Orokorrak aho batez erabaki baitzuen aparteko soldataren baliokideak ziren konpentsazio-neurriak aplika zitezela, Aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren onespena zela eta.

Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legeak, bere artikuluko bakarrean, xedatzen du 2012an Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei osagarri pertsonal bat ordainduko zaiela, erosteko ahalmenaren galera dela-eta, 2012ko ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.

Lege horrek 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO n argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onartutakoa, eta auzitegi horrek foru lege haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judicial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Hasierako plantilla organikoa 2012ko urtarrilaren 25ean onetsi zuen Batzordeak, eta 2012ko otsailean argitaratu zen. Honakoak ziren hasierako plantilla organikoan 2012rako jasotako lanpostuak:

Lanpostua	Maila	Jardunaldia
Bitarteko izaerakoa:		
Idazkaritza	A	% 100
Lan kontratudun finkoak		
Administrari laguntzaile bat.	D	% 50
Garbiketako laguntzaile bat	E	Astean 6 ordu.
Aldi baterako lan-kontratudunak:		
Oihan-lanetarako eta bestetarako hiru langile	D	Urtean 9 hilabete.

Aurrekoaz gainera, 2012ko abenduan, bost pertsona zeuden lanean informazio turistikorako zaindegian, eta hamabost ikasle zeuden enplegu-tailerrean, tailer horretako zuzendariak eta irakasleak gainera.

2012ko martxoaren 13an, ordezkari sindikalak alegatu zuen plantilla organikoak ez duela jasotzen aldizkako langile finkeen zerrenda izenduna. Ibarrek, argitu ondoren langile horiek ez direla aldizkako langile finkoak baizik eta aldizkako kontratu mugagabea duten langileak direla, plantillaren onespina proposatu zuen. Txosten hau idazteko garaian, plantilla organikoaren behin betiko onespina falta da.

Antzeman da PFEZaren atxikipena, aztertutako lagineko bi pertsonari aplikatutakoa, zergaraudi indardunean ezarritakoa baino txikiagoa dela.

Egiaztatu da 2013an 2012ko abenduko gizarte segurantzaren gastua, 5.752 eurokoa, kontabilizatu zela.

Halaber, adierazi beharra dago 2012an 45.108 euro kontabilizatu zirela langileen lansariei zegozkien kapital-transferentzien gastu moduan.

Egiaztatu da kapitulu horretan kontabilizatutako 18.040 euroko kopurua Irati Basoa, S.L. sozietatearen langile-gastuei zegokiela.

Aurrez aipatutakoa alde batera utzita, gastu horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

Hona gomendatzen duguna:

- *Ekitaldi bakoitzeko plantilla organikoa behin betiko onestea.*
- *Langileei PFEZa dela-eta egiten zaizkien atxikpenak aplikatzea ezarritako araudiaren arabera, betiere familia-egoera eta ekitaldirako espero den ordainsari gordina kontuan hartuta.*
- *Langileen gastuen kapituluaren erregistratzea soldatekin eta kontratatutako langileen soldata eta gizarte aseguruarekin lotutakoak, kontabilitateari begira sortzapenaren irizpidea aplikatuta.*
- *Kapitulu horretan kontabilizatzea soilik Ibarrean zerbitzuak ematen dituzten langileen gastuak.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntak eta zerbitzuak erosteko gastuak 281.929 eurokoak izan ziren; aurreikusitako kredituaren ehuneko 57, hain zuzen. 2012ko ekitaldian sorrarazitako gastuen guztizkoaren ehuneko 14 egiten dute. Ehuneko 55 egin dute gora 2011n aitortutakoei dagokienez, batez ere lankidetzaren eta laguntza-ekintzetan eta Iratiko Etxeetan izandako gastu handiagoen ondorioz.

Honakoak dira ondasun arruntaren eta zerbitzuen erosketa-gastuetan ageri diren kontzeptu nagusiak, eurotan:

Kontzeptua	2011ko gastua	2012ko gastua	2012/2011 aldea (%)
Lankidetzaren eta laguntza-ekintzak	28.417	112.870	297
Iratiko Etxeetako gasa	0	24.439	-
Iratiko Etxeetako taberna-jatetxeko hornidurak	0	20.812	-
Erantzukizun zibileko aseguruak	15.657	16.743	7
Batzordearen dietak eta komisioak	14.491	14.762	2
Guztira	74.273	201.879	172

Honakoak dira nabarmen handitu diren gastuak:

- Lankidetzaren eta laguntza-ekintzak: "Iratiko oihanen oihana" mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuarekin lotutako gastuak dira –proiektu hori, izan ere, "Commission Syndicale du Pays de Soule"rekin batera garatzen du–. Honakoak sartzen dira haietan: proiektuaren koordinazio teknikorako laguntza, mapa turistikoa egitea, mendiko bizikletarako zirkuituko balizak jartzea, Iratiko Etxeetako erakusketa iraunkorra eta abar.

- Iratiko Etxeetako taberna-jatetxeko gasa eta hornikuntzak: Iratiko Basoa, S.L. sozietatearen jarduerarekin lotutako gastuak dira –sozietate hori da 2012ko uztailetik Iratiko Etxeak kudeatzen dituen–. Gastu horiek, izan ere, Ibarrean hartu zituen bere gain.

Aurreko lerroetan aipatutakoa alde batera utzita, gastu horien azterketaren arabera, indarrean dagoen araudia behar bezala betetzen da.

Gomendatzen dugu Ibarrean dagozkion gastu arruntaren eta zerbitzuen gastuak erregistratzea, eta ez Iratiko Basoa, S.L. sozietateak egindakoak.

VI.4. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

VI.4.1. Transferentzia arruntak

Transferentzia arruntengatiko gastuak 54.853 milioi eurokoak izan ziren 2012an; gastu guztien ehuneko hiru, hain zuzen. Betetze-maila txikia izan zen, behin betiko kredituen ehuneko 57koa; izan ere, 2012an, aurrekontuan jasota egon arren, ez da finantzatu Ibarreko udalen zabor-tasen kostua.

Honakoak dira 2012an gastu gisa erregistratutako transferentzia nagusiak, eurotan:

Kontzeptua	2011ko gastua	2012ko gastua	2012/2011 aldea (%)
Udalek zaborretako tasetarako egindako ekarpena	29.000	-	-
Oinarrizko gizarte-zerbitzuarentzako ekarpena	22.000	22.101	0,5
Musika Eskolarako ekarpena	21.301	19.997	-6
Euskara-zerbitzua dela-eta Erronkari Ibaixaren Batzordeari egindako ekarpena	-	9.828	-
Guztira	72.301	51.925	-28

2012an eutsi zaien transferentziek, 2011koekin alderatuta, antzeko zenbatekoak dauzkate, baten bat kenduta –besteak beste, zabor tasen finantzaketarako ekarpenak–. Kontzeptu horren 2012ko finantzaketa 2013ko aurrekontuaren kargura egingen da, eta 29.000 eurokoa da.

VI.4.2. Kapital-transferentziak

Kapital-transferentziengatiko gastuak 69.251 milioi eurokoak izan ziren 2012an; gastu guztien ehuneko hiru, hain zuzen. Haien exekuzio mailak behin betiko kredituen ehuneko 75 egin zuten.

2012an, 2011ko kontzeptuetako batzuei eusten zaie; besteak beste, Iratirako Hitzarmenari, enplegua sustatzeko ekarpenei eta jaiotzarako laguntzei. Kontzeptu berri gisa, Irati kirol kluberrako ekarpena eta Irati Basoa, S.L. sozietatearen eraketa erregistratu dira, 2012ko uztailean.

Honakoak izan dira 2012ko transferentzia nagusiak, eurotan:

Kontzeptua	2011ko gastua	2012ko gastua	2012/2011 aldea (%)
Iratirako hitzarmena	64.442	45.844	-29
Enplegua sustatzea ibarrean	7.605	12.008	58
Irati Basoa, S.L. sozietatearen eraketa	0	3.400	-
Irati Kirol Kluberako ekarpena	0	3.000	-
Jaiotzarako laguntza	3.000	5.000	67
Guztira	75.047	69.252	8

Ikusten den bezala, larretan, abeltzaintzako tratamendu-eskortetan eta abarretan hobekuntzak egiteko lanetan diharduten langileek soldata txikiagoak izan dituztenez, Iratirako Hitzarmenaren gastua txikiagoa izan da. Esan bezala, gastu hori ia guztia (45.108 euro) langile-gastuen 1. kapituluaren kontabilizatu beharko litzateke.

Kapital-transferentzia gisa erregistratutako eragiketak ez daude zuzen kontabilizatuta, zeren eta transferentzia arruntengatiko gastu gisa erregistratu beharko bailirateke, eta Irati Basoa, S.L. sozietatea eratzeko ekarpena, berriz, finantza-aktiboengatiko gastu gisa.

Gomendatzen dugu kapital-transferentziengatikoko gastuak beren izaeraren arabera erregistratzea, ekarpenaren xedeari erreparatuta.

VI.5. INBERTSIOETAKO GASTUAK

2012ko inbertsioak 1.370.917 eurokoak izan dira. 2012ko inbertsioak 1.370.917 eurokoak izan dira.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espeditenteak barne:

(eurotan)				
Inbertsioa	Lizitazio-prezioa, BEZa barne (eurotan)	Kontratazio prozedura	Esleipenaren zenba- tekoa (BEZa barne)	2012ko gastua
Iratiko Etxeak eta haien ingurunea egokitzea	2.320.000	Irekia	2.189.751	642.687
Abodiko Eski Zentroko obrak	1.131.548	Irekia	1.008.358	449.926
Errekaldorra basabideko harri-lubeta	61.902	Negoziatua	48.380	50.526

Egiaztatu da ezen hiru obretan kontratazio-, esleipen- eta exekuzio-espeditenteak kontratatuei buruzko legediaren arabera izapidetu direla. Halere, honakoak aipatu nahi genituzke:

- Iratiko Etxeak egokitzea: obrak 2010ean esleitu ziren eta 2012an amaitu ziren. Guztira egindako gastua esleipen-zenbatekoaren antzekoa da. 2012an, 399.760 euro kontabilizatu ziren gastu gisa, 2011ko abenduko seigarren ziurtagiriari zegozkionak.

Obra honen espeditentean ez dago ez gastua onetsi izanaren aktarik, ez klausula administratibo partikularren baldintza-orriak onetsi izanaren aktarik, ez eta obra jaso izanaren aktarik ere – azken ziurtagiria 2012ko irailekoa da–.

- Abodiko Eski Zentroko obrak: obra 2011n esleitu zen, eta gaur egun amaitzeko dago, zeren eta Nafarroako Gobernuak ez baitu bete obraren bigarren fasea finantzatzeko konpromisoa.

Hona gomendatzen duguna:

- *Inbertsioen gastuak haien sortzapenaren arabera erregistratzea.*
- *Obren eta horniduren kontratuen esleipen-espeditenteekin lotutako dokumentazio guztia artxibatzea, halako moduz non haren betetzearen jarraipen egokia egin ahalko den.*

VI.6. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2012ko diru-sarrerak 1.950.875 eurokoak izan ziren. Ondoren haien xehakapena erakusten dugu, eurotan, kapituluaren arabera antolatuta eta 2011n aitortutakoekin alderaketa eginez:

3	Aitortutako eskubide garbiak		2012/2011 aldea (%)
	2011	2012	
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	41.207	20.970	-49
4. Transferentzia arruntak	363.774	967.442	166
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	133.795	234.152	75
7. Kapital-transferentziak	540.589	217.114	-60
8. Finantza-aktiboak	33.444	27.683	-17
9. Finantza-pasiboak	-	483.514	-
Diru-sarrerak, guztira	1.112.909	1.950.875	75

VI.6.1. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk

Kapitulu honetako diru-sarrerak 20.970 euro egiten dute, eta diru-sarrera guztien ehuneko bat egiten dute. Betetzearen portzentajea, berriz, ehuneko 50ekoa da.

2011koen aldean, ehuneko 49 egin dute behera, batez ere mapen salmentak behera egin delako eta Irati Oihaneko bisitariak aparkatutako ibilgailu bakoitzeko prezio publikoaren bidez diru-bilketa txikiagoa izan delako (24.619 euro). Diru-sarrera horiek, aurrez adierazi bezala, Irati Basoa, S.L.k erregistratu ditu. Horri dagokionez, esan beharra dago prezio publikoetatik heldu diren diru-sarrera horiek 2013an jada Ibarrek erregistratu dituela.

Kapitulu honetan transferentzia arrunten bidezko diru-sarrera batzuk kontabilizatu dira, 8.844 eurokoak, Otsagabiako Udaletik eta Nafarroako Gobernutik heldutakoak.

Hona gomendatzen duguna:

- *Kapitulu honetan erregistratzea Ibarrek eskumenekoak diren diru-sarrera guztiak.*
- *Transferentzia arrunten bidez jasotako diru-sarrerak diru-sarreraren 4. kapituluaren erregistratzea.*

VI.6.2. Transferentzien bidezko diru-sarrerak

VI.6.2.1. Transferentzia arruntak

Diru-sarrera hauek 2012an 967.443 euro egin zuten, ehuneko 112ko betetze-portzentajearekin. 2011koen aldean, ehuneko 166 egin dute gora. Aldea zor zaio, nagusiki, 2012an Iratiko Etxeen lurralde arteko proiektuaren diru-laguntza bat, 500.171 eurokoa, eta enplegu-tailerrerako (tailer eskola) 162.484 euroko beste diru-laguntza bat jaso izanari.

2012an jasotako transferentziak, beren zenbatekoarengatik aipagarri direnak, honakoak dira, eurotan:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Iratiko Etxeak lurralde arteko proiekturako diru-laguntza	-	500.171	-
Bardeako Tiro Poligonoa	195.000	195.000	0
Enplegu-tailerrerako diru-laguntza	-	162.484	-
Oihan-lanak (soiltzeak) egiteko diru-laguntzak	102.876	94.143	-8
Guztira	297.876	951.798	220

Lurralde arteko diru-laguntza lotuta dago Iratiko Etxeen zaharberritzeko obrekin eta "Iratí, oihanen oihana" proiektuaren esparruko lankidetzak-ekin. Nahiz eta diru-laguntzaren ehuneko 80k (400.137 euro) inbertsio-xedea zuen, diru-sarreraren kapituluaren erregistratu zen.

*Gomendatzen dugu kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera gisa erregistratzea inbertsi-
oak egiteko jasotako diru-laguntzak.*

VI.6.2.2. Kapital-transferentziak

Diru-sarrera horiek 217.114 eurokoak izan ziren 2012an. Betetzea, berriz, ehuneko 29koa izan zen. Ehuneko 60 jaitzi ziren 2011ko diru-sarrerekin alderatuta.

Ondoren erakusten dugu, eurotan, 2012an eta 2011n jasotako diru-laguntza aipagarrienen alderaketa. Izan ere, alderaketa horrek azaltzen du kapitulu honetako diru-sarrerak behera egin izana:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Nafarroako Gobernuak Iratiko obrak egiteko emandako diru-laguntza	361.805	19.166	-95
Larreak hobetzeko diru-laguntza	70.277	68.676	-2
Iratirako Hitzarmeneko diru-laguntza, Ingu- rumen Departamentuarena	78.463	64.090	-18
Abodiko obrarako diru-laguntza	-	50.000	-
Nafarroako Gobernuak oihan masa hobe- tzeko emandako diru-laguntza	29.754	14.327	-52
Guztira	540.299	216.259	-60

Gutxitzea heldu da, batez ere, Nafarroako Gobernutik Iratiko Etxeak zaharberritzeko jasotako diru-laguntzak behera egin izatetik. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago transferentzia arrunt gisa erregistratu zela inbertsio hori egiteko jaso zen 400.137 euroko diru-laguntza bat, kapitulu honetan kontabilizatu behar zena.

Transferentziak kontabilitatean jasotzeko irizpidea da haiek kontabilizatu ziren unea, alde batera utzita zein unetan jakin den diru-laguntza hori jasoko dela. Hartara, 2012ko ekitaldian, kapital-transferentzien bidezko diru-sarrera batzuk erregistratu dira, 119.676 euro egiten dutenak. Nafarroako Gobernuak larreak hobetzeko, ingurumen jarduerak egiteko (Iratirako Hitzarmena) eta Abodiko Eski Zentroko obrak egiteko emandako diru-laguntzei dagozkie, eta haiek ordaintzeari buruzko ebazpena 2011koa da.

Era berean, 2013an, kobratzeko unean, aurreko kontzeptuengatik diru-sarrera batzuk, zenbateko metatuan 521.542 euro egiten dutenak, erregistratu dira, nahiz eta haiek ordaintzeko ebazpena 2012koa izan.

Iratiko Etxeak zaharberritzeko obrak "Iratí, oihanen oihana" mugaz gaindiko proiektuaren barruan sartzen dira, eta 2011n Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntza batekin eta Europako Feder Funtsetik jasotako laguntzekin finantzatu dira. Ez dira kalkulatu proiektu honi dagozkion urteko finantzaketa-desbideratzeak zeinak, egindako kalkuluen arabera, 155.100 euro (negati-
boak) eta 335.639 euro (positiboak) egiten baitute. Desbideratze horiek eragina dute aurrekon-
tuen emaitzaren kalkuluan.

Hona gomendatzen duguna:

- *Transferentzien bidezko diru-sarrerak kontabilizatzea haiek jasoko direla formalki jakiten den unean.*

• *Obren egitea eta obra horiek finantzatzeko diru-sarrerak ekitaldi desberdinetan gertatzen direneko proiektuei dagozkien finantzaketa-desbideratzeak kalkulatzea eta haiek kontuan izatea kasuko kontabilitateko egoera-orriak egiteko garaian.*

VI.6.3. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak

Diru-sarrera hauek 2012an 234.152 euro egin zuten, ehuneko 154ko betetze-portzentajearekin. 2011koen aldean, ehuneko 75 egin dute gora. Aldea heldu da, nagusiki, zuhaitzen salmentaren bidezko diru-sarrerak gora egin izatetik.

Honako hauek dira diru-sarrera hauen kontzeptu nagusiak:

Kontzeptua	2011ko diru-sarrera	2012ko diru-sarrera	2012/2011 aldea (%)
Zuhaitzen salmenta	104.111	201.155	93
Larreen aprobetxamendua	14.016	15.352	10
Iratiko Etheen errentamendua	-	8.335	-
Guztira	118.127	224.842	90

Oihan loteen salmentari dagokionez, Ibarrek faktura bat egiten dio erosleari, lotea esleitzen zaionean, eta hartan dagokion BEZa sartzen du. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian dagoenez, Ibarrek ez du faktura egin behar; Izan ere, enpresaburuak jaso-agiri bat egin behar du, guztizko zenbatekoa adierazita (horren barne dela, kopuru finkoko konpentsazioaren ehuneko 12a), eta agiri hori izanen da eragiketaren euskarria edo ziurtagiria.

Adierazitakoaz gainera, errepikatzen den diru-sarrera bat badago, ehiza-barrutiari dagokiona (6.428 euro 2012an eta 6.213 euro, berriz, 2011n).

Ez dira baliabide atxiki gisa erregistratzen ez zuhaitzen salmentatik heldu diren diru-sarreraren ehuneko 20a, Oihan Ondarea Babesteari buruzko 13/1990 Foru legeko 67.1 artikuluan jasotakoa, ez eta ehiza-barrutiak sortutakoen ehuneko 25a ere, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeko 20.1.d artikuluan finkatutakoa. Aipatutako araudia 2012an aplikatu izan biltz, 41.838 euro atxiki beharko ziren.

Hona gomendatzen duguna:

• *Oihan loteen esleipen-hartzaileei eskatzea behar den jaso-agiria egin dezatela halako eragiketen euskarri gisa.*

• *Baliabide atxikitzat jotzea zuhaitzen salmentaren bidez eta ehiza-barrutiaren bidez lortutako diru-sarreraren ezarritako ehunekoak.*

VII. ZARAITZU IBARREKO MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUARI BURUZKO ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira Kontuen Ganberaren aburuz Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatuak bete beharreko ondorio eta gomendio nagusiak, horrela bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko:

Zaraitzu Ibarreko Musika Eskolaren Patronatua 1990ean sortu zen eta bere estatutuak dauzka arau gisa. Patronatuaren gobernu organoko burua Zaraitzu Ibarreko Batzorde Orokorreko enplegatu bat da. Ez dago izena emanda Nafarroako Toki Entitateen Erregistroan.

Haren xedea da Zaraitzu Ibarrean musika-hezkuntza ematea. Horretarako, zenbait musika-irakasle dauzka, lan kontratudunak, irakasle baten salbuespenarekin; izan ere, azken horrek hirugarren sozietate batekiko zerbitzu-kontratu baten bitartez dihardu.

2012rako aurrekontuak 68.000 euroko hasierako aurreikuspena du; amaierako betetzea, berriz, 68.846 eurokoa izan da. Eskolaren finantzabidea ikasleei kobratzen zaizkien tasak eta Ibarretik, Nafarroako Gobernutik eta finantza-entitateetatik heldu diren diru-laguntzak dira.

Patronatua irailean biltzen da aurreko ikasturteari buruzko honako informazioa onesteko: diruzaintzaren hasierako saldoa, diru-sarrerak, gastuak eta diruzaintzaren amaierako saldoa, bilera egiteko datari dagokionean. Halaber, besteak beste, irakasleen kontratazioa edo ikasleei kobratzen zaizkien tasen zenbatekoa lantzen dira.

Ez da egiten Nafarroako Toki Entitateentzako Kontabilitate Bakunaren Instrukzioa ezartzen duen irailaren 21eko 273/1998 Foru Dekretuan aurreikusitako kontabilitateko egoera-orrietatik bakarra ere.

Egiten diren agiri bakarrak dira ekitaldi bakoitzeko hasierako aurrekontua eta diru-sarreraren eta gastuen betetako aurrekontua, eta haietan aurreikusitako kopuruak eta kasuan kasu egiazki gauzatu direnak baizik ez dira jasotzen. 2012. urteari dagokionez, agiri horiek Patronatuko lehendakariak eta Ibarreko Batzorde Orokorreko idazkariak sinatuta ageri dira, 2012ko apirilaren 11ko (hasierako aurrekontua) eta 2013ko otsailaren 23ko (aurrekontuaren likidazioa) datekin.

Horiexek dira urtero Musika Eskolak aurkezten dituen agiri bakarrak, gero Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari igortzen zaizkionak, kasuko finantzaketa eskatze aldera.

Kontabilitatea eskuz eramaten da; nominak, berriz, aholkularitza-enpresa batek egiten ditu.

Langile-gastuek 62.679 euro egin zuten. Kopuru horretan sartzen da 2012ko abenduko aparteko soldata, urte osoan zehar hainbanatuta ordaintzen baita. Aparteko soldataren ordainketari dagokionez, Ibarreko langileentzat adierazitakoa aplikatu behar da.

Agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da langileen gastuen kapituluan 2012an aitortutako betebeharrekin 5.612 euroan gainditzen dituztela aurreikusita zeudenak.

Halaber, langileen gastuen kapituluan, 7.366 euro kontabilizatu dira, hirugarrenen gastuei dagozkienak (lan aholkularitza, 1.135 euro, eta kanpoko irakasle kontratatuak, 6.231 euro). Gastu horiek, ordea, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuen 2. kapituluan erregistratu beharko lirarteke.

Betetako aurrekontua jasotzen duen agirian, langileen kargurako gizarte-aseguruei dagokien kuota bikoizturik ageri da, eta ordainsari gordinen eta gizarte-kostuen atalean jasotzen da.

Ibarrak ez du inongo kontrolik edo kontu-hartzailetzarik egiten Patronatuaren jardura ekonomiko-finantzarioa dela eta.

Hona gomendatzen duguna:

- *Musika Eskolak nahitaez aurkeztu beharreko kontabilitateko egoera-orriak egitea eta onestea, zeren eta erakunde autonomo bat baita, eta haren jarduera ekonomiko-finantzarioaren kontu-hartzailletza egin behar baita.*
- *Patronatua desegin eta Ibarrek haren jarduera bere gain hartzeko aukera baloratzea.*
- *Patronatua desegiten ez bada, hari alta ematea Nafarroako Toki Entitateen Erregistroan.*
- *Eragiketak egoki kontabilizatzea.*
- *Patronatuak aurrera eraman duen jarduera berrikusteko beharrezkoak diren barne-kontrolako prozedurak egitea.*

VIII. IRATI BASOA, S.L. SOZIETATEARI BURUZKO ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira Kontuen Ganberaren aburuz Irati Basoa, S.L. sozietateak bete beharreko ondorio eta gomendio nagusiak, horrela bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

Zaraitzu Ibarra Irati Basoa, S.L. sozietatearen bazkide bakarra da. Sozietateak 3.300 euroko kapital soziala dauka. Sozietatearen jarduera nagusia da Iratiko Etxeetako taberna-jatetxea kudeatzea. Taberna-jatetxearen instalazioak, altzariak eta tresneria Ibarren jabetzakoak dira eta sozietateari alokatzen dizkio errentamendu-kontratu baten bitartez.

2012ko ekitaldiaren emaitza, hura izan baitzen jardueraren lehenengo urtea, 6.472 eurokoa da. Negozio-zifra (taberna-jatetxearen diru-sarrerak) 105.620 eurokoa da. Haren gastu nagusiak hornikuntzakoak (48.176 euro), langileenak (bost pertsona lanaldi osoan irailetik eta aldi baterako lau langile, 43.476 euro ordainduta) eta ustiaketaren beste gastu batzuk (35.420).

Halaber, Iratiko Oihaneko bisitari dagozkion prezio publikoen diru-bilketari dagokionez (Ibarren eskumena da hori), sozietateak 27.815 euroko diru-sarrerak erregistratu ditu, eta diru-sarrera horien itzulketen ondoriozko 3.196 euro; halaber, Ibarrek bildutakoa emateari dagokion 27.000 euroko hornikuntza bat erregistratu da.

Aurrez aipatu den bezala, 2012an, bere jarduera garatzerakoan, sozietateak zenbait gastu egin zituen (langileak, hornikuntzak, aseguruak, jantziak eta lanbide-zerbitzuak), 62.285 euro egiten dutenak (BEZik gabe). Ibarrek hartu zituen gastu horiek bere gain. Horri dagokionez, 2013an, Ibarrek kontzeptu horiek direla-eta 60.737 euroko diru-sarrera bat aitortu du. Zenbateko hori ko-bratzeko dago.

Aurrekoaren ondorioa da ezen sozietatearen emaitza 59.904 euroan gehiegi baloratuta dagoela eta, horrenbestez, 53.432 negatiboa izan beharko lukeela.

Sozietateen gaineko zergaren kalkuluan, kuotaren ehuneko 99ko hobari bat jo da (Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/96 Foru Legeko 58. artikulua araber; artikulua hori udal eskumeneko edo foru erkidegoaren eskumeneko jarduerari buruzkoa da). Gure ustez, hobari hori okerra da, zeren eta jarduera ez baitago jasota araudi horren kasuetan.

Sozietateak enpresa txiki eta ertainentzako ereduaren araber aurkezten ditu urteko kontuak. Haien aztertuta, ikusten da urteko kontuen oroitidazkian ez direla aipatzen eragiketak egiten diren lotutako aldeak (Zaraitzu Ibarra), ez eta eragiketa horien zenbatekoak ere. Haien aztertuta, ikusten da urteko kontuen oroitidazkian ez direla aipatzen eragiketak egiten diren lotutako aldeak (Zaraitzu Ibarra), ez eta eragiketa horien zenbatekoak ere.

2012ko kontuei dagokienez, Nafarroako Merkataritza Erregistroan erregistratu gabe daude eguneroko liburua, inbentarioen liburua eta urteko kontuak.

Akten liburuan, akta batzuei lehendakariaren, idazkariaren eta kideetako batzuen sinadurak falta zaizkie.

Ibarrek ez du inongo kontrolik edo kontu-hartzaitzarik egiten sozietatearen jarduera ekonomiko-finantzarioa dela eta.

Hona gomendatzen duguna:

- *Sozietatea desegin eta Ibarrek haren jarduera bere gain hartzeko aukera baloratzea.*
- *Instalazioen jabea den bazkide bakarrarekin egindako eragiketak argitu eta erregulatzea: errentamenduaren zenbatekoak egokitzea, finantza-laguntzak, gastuen onarpena eta abar.*
- *Kontabilitate- eta merkataritza-betebeharrak betetzea eta eragiketa ekonomikoak egoki erregistratzea.*

- *Sozietateak aurrera eraman duen jarduera berrikusteko beharrezkoak diren barne-kontrolako prozedurak egitea.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko apirilaren 7an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas